

## Etxebizitza funtzional/ tutoretzapekoaren zerbitzua.

**Prestazio mota:** Bermatua.

**Baliabide mota:** Egoitzako arreta zerbitzua.

**Baliabidearen xedea:** Etxebizitza normalizatu batean emandako zerbitzua, non harremanen eta bizikidetzaren dinamika familiakoaren antzekoa baita, autonomia pertsonalari eutsi edo hobetzeko oinarrizko beharrei **arreta integrala** emateko eta gizarteratzea eta parte-hartze soziala errazteko.

**Onuradunak:** 18 urtetik 65 urtera bitarteko pertsonak, ezgaitasun fisiko edo/eta adimenekoa dutenak eta/edo garuneko lesioa.

**Jasotzeko baldintzak:**

- Funtzionamenduko **autonomia** izatea ingurune normalizatuan.
- **Tutoretza eta gainbegiratzea** behar izatea eguneroko bizitzako oinarrizko jardueretan.
- **%55eko edo hortik goitiko elbarritasuna** aitortua izatea.
- Eskaera egin aurreko urtean Nafarroan egiazki eta jarraian bizi izan dela frogatzea.
- Jarduera bat betetzea **ikastetxe batean, zentro edo unitate okupazional batean, enplegurako zentro berezi batean, ohiko enpleguko lan kontratua edo Nafarroako Mendekotasun Agentziak onartutako beste edozein jarduera.**
- **Nafarroako Mendekotasun Agentziak emandako egokitasun txostena.**

**Zerbitzua irekita:** Eguneko 24 orduetan, urteko egun guztietan.

